

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko apirilaren 17a. IX. urtea. 2.578. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Joseba F. Tobar Ekonomilaria eta irakaslea

«Herritarrok eman behar dugu krisiaren aurkako lehen pausoa»

Zizurkilgo Udalak 'Krisiaren zergatiak eta irtenbideak' hitzaldia antolatu du, Joseba Tobarren eskutik; gaur, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean izango da **04**

Errentaren gaineko zerga euskaraz egitea eskatzen diete herritarrei

'Aurten noraino?' kanpaina martxan jarri dute Tolosaldeko euskalgintzako hainbat eragilek eta udalek; iazko datuak hobetu nahi dituzte **06**

Tolosako Alliri auzoan martxan jarri dute auzo konposterako gunea

Aldez aurretik udalean izena eman zuten hogei familia ari dira konposta egiten; aste honetan Izaskun auzoko beste 21 familia hasiko dira **03**

Atez atekoaren gizarteratze prozesuarekin «gustura» geratu dira

Amasa-Villabona, Anoeta, Alegia, Irura eta Zizurkilen egin dituzten bilerek izan duten erantzuna «positiboa» izan da Tolosaldeko Zabor Mankomunitatearentzat **03**

Joseba Esnaola Harri-jasotzailea

«Gauza bat da indarra eta bestea teknika; nik asko dut ikasteko oraindik»

Harri-jasotzaile hasi berria da Joseba Esnaola berrobitar gaztea, eta iaz jaso zuen lehen harria jendaurrean, Izaskunen; datorren hilean ekingo dio denboraldi berriari, eta hasteko gozoz dago **07**

Zeelanda Berriko ikuspegi argazkiak biltzen dituen erakusketa, Ibarra

Josu Mendizabal ibartarrak egindako bi bidaietan ateratako argazkiak dira kultur etxean daudenak; hilaren amaiera bitarte egongo dira ikusgai **05**



Josu Mendizabal ibartarra, herriko kultur etxean jarri duen erakusketan. I. TERRADILLOS



Eraikineko lehen solairuan ariko dira lanean, aurrerantzean, Lehiberri foro kideak. I. URKIZU

Martxoan zabaldu zuten Lehiberri zentroa, eta Tolosaldeko enplegua eta enpresagintza dinamizatuko dute, 3.000 metro karratu dituen zentrotik; ate irekiak antolatu dituzte.

Berrikuntzari atea zabalik

Itzea Urkizu

Pasa den martxoaren 21ean inauguratu zuten, Apatta industrigunean dagoen Lehiberri zentroa. Egitasmoa bera, ordea, 2008an sortu zen, Lehiberri Tolosaldeko lehiakortasun eta berrikuntzarako foroarekin.

Foroaren jarduna fisikoki kokatu eta gorpuzteko sortu da Lehiberri zentroa, eta beren lan ildo nagusietan aurrerapausoak emateko azpiegitura izango da, aurrerantzean, eraikina; dato-

zuzte, eta Tolosaldea Garatzen-en bidez, enplegua sustatzeko eskualdeko bulego bakarra ere zentroan bertan izango da.

Lehiberriko 3.000 metro karratuak lau solairutan banatuta daude, Tolosaldeko enpresa mundua

tuzte, eta Tolosaldea Garatzen-en bidez, enplegua sustatzeko eskualdeko bulego bakarra ere zentroan bertan izango da.

Lehiberriko 3.000 metro karratuak lau solairutan banatuta daude, Tolosaldeko enpresa mundua

tuzte, eta Tolosaldea Garatzen-en bidez, enplegua sustatzeko eskualdeko bulego bakarra ere zentroan bertan izango da.

Lehiberriko 3.000 metro karratuak lau solairutan banatuta daude, Tolosaldeko enpresa mundua

berrikuntzara bideratze horretan.

Idea berritzaileen sehaska

Tolosaldea Garatzen agentziaren bulegoak ikusiko ditu bisitariak, Lehiberri zentrorako sartutakoan;



Bi formakuntza gela ditu zentroak, eta ikasleak lanean ari dira jada. I. U.

↓ Iragarki laburrak

LANESKAINZA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da, ostiral eta larunbatetan, eta oporretako ordezkapenetan, barra nahiz jatetxean lan egiteko. Bidali curriculum, Correo-seko 20, posta kutxara.

LANBILA

Autobus gidaria. Edozein lanetarako, autobusa gidatzeko balmena duen gizonak bere burua eskaintzen du. Esperientzia du eremu honetan. Interesa dutenek, deitu 677 88 42 78ra.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

eskualdeko enplegu bulego bakarra dago bertan, eta aholkularitza eskaintzen diete langabetei.

Garapen agentziak gain, ordea, auditorioa ere solairu berean dago, «enpresa munduan erreferentzia izango diren egitasmoak sustatzeko»; 100 lagun ingururentzat tokia dago bertan.

Sotoa ere badu Lehiberri, eta eskualdeko enpresentzat laborategiak prestatu dituzte bertan: «Eskualedea mikro-enpresez osatuta dago gehienbat, eta lankidetzan sustatze espazio neutral bat eskaintzen diegu hemen, ekintzailetasun klasikoak nahiz berritzaileak sustatuz», dio Urdangarinek. Horrela, alokairu «xumeekin», pabiloi txiki modukoetan abiarazi ahal izango dira proiektu berriak.

Lehen solairua, berriz, Lehiberri foroaren beraren gunea izango da, baina horrez gain, IKTetan eta marketing-ean trebatzeko bi formakuntza gela ere badira: «Lehendik ere badagoen formakuntza osatu nahi dugu Tolosaldea GLHirekin elkarlanean».

Lehiberri zentroaren jarduna biribiltzeko azpiegitura, berriz, enpresen hazitegi eta haztegi kokatu dute arduradunek: «Enpresa bat sortu nahi dutenek nahiz gradu amaierako proiektua egin nahi dutenek, ideia berritzaileak dituztenek, hemen izango dute lekua, interneteko konexio, telefono eta beharrezko azpiegitura guztiak. Egitasmoek, noski, berritzaileak eta teknologikoak beharko dute izan», azaldu du Urdangarinek.

Behin proiektua garatu eta gero, enpresak sortze bidean direnean, enpresen haztegi pasatzeko aukera izango dute ekintzaileak. Zazpi espazio osatu dituzte, 15 eta 20 metro karratu ingurukoak, eta alokairuan eskainiko dituzte, gehienez ere hiru urterako: «Lehen Miramonera edo Arrasatera bideratu behar izaten genituen eskualdeko egitasmo berritzaileak, eta orain, hemen lan egin ahal izango dute, aholkularitzaren laguntzaz», azaldu du Urdangarinek.

• tolosaldean@hitza.info



Apatta industrigunean dago Lehiberri, eta guztira 3.000 metro karratu ditu eraikina. I. URKIZU

«Balantze positiboa» egin dute atez atekoaren gizarteratze prozesuaz

Herritarrekin bilerak egin dituzte Alegian, Amasa-Villabonan, Anoetan, Iruran eta Zizurkilen

Erredakzioa

Hilabete bada jada, Amasa-Villabona, Irura, Anoeta, Alegia eta Zizurkilek «bilketa eredu eraginkorrerago baten aldeko apustua» publiko egin zutenetik. Herritarrei begirako informazio bilerak burutu dituzte bost herri horietan, eta Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak bileretako parte hartzearen «balantze oso positiboa» egin du, «herritarrek informatzeko nahia eta hondakinen gaiarekiko ardura erakutsi baitute».

Mankomunitateak, gizarteratze prozesuaren garrantzia nabarmendu du: «Herritarrentzat ari gara lanean, herritarrekin egotea ezinbestekoa delako». Bide honetan, atez ateko bilketa ereduak aukeratzearan arrazoiak azaldu dizkiete herritarrei.

Besteak beste, «etorkizunearn zabortegeiek orain arteko sistemen jarraituz gero izango luketen eragina, gaur egun udalarentzat defizitarioa den eredu honekin jarraitzeak dakarrena, eta hondakinak ongi sailkatzeak ingurumenearn eta ekonomian izan ditzakeen onurak», azaldu dituz-



Villabonako Udalak bileretako «hutsunea» nabarmendu du. HITZA

te. Hondakinak atez ate biltzeko hautuaren arrazoiak azaltzeaz gain, funtzionamenduaren inguruko datuak ere eman dizkiete herritarrei, eta azkenik, herritarrek euren kezkek nahiz zalantzak azaltzeko aukera ere izan dute bileretan.

Tolosaldeko bost herri hauetan ordezkari politikoen eta herritarren artean egindako bilera hauetatik, ondorio bat atera du mankomunitateak: «Herritarrek birziklaturaren bultzatzen dituzten sistema honek, eta ondorioztatu dugun moduan, guztiok birziklatu nahi dugu gehiago».

Era berean, «aldeko eta aurkako iritzia» ere islatu dira bileretan. Dena den, «herritarrek egungo egoerak dakarren erronkari eutsi nahi diote, oro har, gaur egungo ereduak aldatu egin behar baita», diote.

Bileretan ikusi ahal izan dute-nez, «herriz herri hainbat kezka errepikatu egin dira». Honen aurrean, mankomunitateak eta udalek honakoa nabarmendu nahi izan dute: «Ez dugu isunik jarriko sailkapena gaizki eginez gero; ondo egin ahal izateko, berriz, bitarteko guztiak jarriko ditugu».

Halaber, arlo ekonomikoak ere kezkek sortzen dituela azaldu dute. «Esan behar da, atez ateko sistema merkeena dela», azaldu dute mankomunitateko arduradunak: «Gaur egun udalek hondakinen inguruan duten zama ekonomikoak murrizteko, atez ateko bilketaren emaitza onengatik, ezagutzen dugun sistemarik eraginkorrena eta sostengarriena delako, aukeratu dugu atez ateko bilketa ereduak».

Honenbestez, herritarrek be-

ren aldetik, eta baita mankomunitateak eta udalek ere, bileren balorazio positiboa egin dute, mankomunitateak azaldu duenez: «Informazio guztia mahai gainean jartzearekin, herritarren kezkek uxatu egin dira. Saiok aurrera egin ahala, gainera, giroa baretu dela ikusi dugu, eta herritarren kezka eta ardurek erantzututa izan dute; hori oso ondo hartu dute herritarrek».

Bilera bidez buruturiko gizarteratze prozesua amaitu den arren, bilera horietara joaterik izan ez duten nahiz informazio gehiago nahi duten herritarrei begira, informazio bulegoak ireki dituztela jakinarazi dute udalek.

Villabonako, «hutsunea»

Amasa-Villabonako Udalak, Amasa-Villabonan pasa den astean egin zituzten bilerak, eta udalaren arabera, «orokorrean, eztabaida hauek nolabait pobretu dituen EAJren eta PSE-EEren hutsuneak izan dira, alkatearen iritzia soilik geratu baita agerian, 170 lagun ingururen aurrean».

Amasa-Villabonako Udalak, gainera, Galder Azkue alkateak gizarteratze prozesuko bileran parte hartzeko gonbidapenaren erantzunik ez duela jaso nabarmendu nahi izan du: «Ez dugu erantzun ofizialik edo ez-ofizialik jaso, baina hala ere, bertaratuakoe proposamen eta ideia asko plazaratu zituzten».

● tolosaldean@hitza.info

Atez ateko sistema jartzea berraztertze eskatu du PSE-EEK

Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo ordezkari sozialistek «atez atekoa inposatu» egin nahi dutela salatu dute

I. Urkizu Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo PSE-EEK ordezkariak, herri hauetako udalei atez ateko hondakin bilketa sistemaren inguruan hartu duten jarrera berraztertze eskatu diete: «Atez atekoa hainbat protesta eta tentsio sortzen ari da, eta ez dugu inposaketarik nahi».

Honen harira, Maria Luisa Arijak eta Oscar Martinezek, gogora ekarri nahi izan dituzte bi herrietan atez atekoaren aurka bildutako sinadurak: «Villabonan 1.934 sinadura jaso dituzte, eta Zizurkilen 1.275 lagun azaldu dira bosgarren edukiontzia alde».

Gainera, Bilduko udal ordezkariak «jarrera itxia» erakusten ari direla diote sozialistek, «herriaren oposizioa garbia den arren».

Honenbestez, eta Bilduri «itsutasun ideologikoa» alde batera uzteko eskatuz, hondakinen arazoa «herritarren arteko elkar ulertzearen bidez» konpondu behar da PSE-EEren ustez, «eta ez indarkeriaren bidez».

Tolosako Alliri auzoan abian da auzo konposta

Pasa den ostiralean banatu zizkieten giltzak, eta guztira 20 familia ari dira konposta egiten

Itzea Urkizu Tolosa

Alliri auzoko bizilagunak izan dira, Tolosan auzo konposterako gunea erabiltzen lehenak; pasa den ostiralean banatu zizkieten giltzak, eta 20 familietako 65 herritar ari dira jada, konposta egiten, hondakin organikoak konpostagailura bideratuz.

Tolosako Udala urtarilean bildu zen, lehenengoz, Alliriko bizilagunekin, auzo konposterako gunearen egitasmoa azaltzeko; interesa azaldu zuten bizilagunek izena eman zuten proiektuan parte hartzeko, eta ikastaro bat jaso ondoren, konpostagailuaren erabilera praktikan jartzen hasi dira jada.

Alliriko bizilagunak gain, Tolosako hainbat auzotara zabaldu du udalak eskaintza, eta horrela, Izaskun auzoko beste 21 familiek, aste honetan bertan jasoko dituzte Zabalarreta parkean jarri duten konposta guneko giltzak; halaber, Amarotz eta Larramendi auzoetako bizilagunek ere laster izango dute konposta egiteko aukera.

Aipatzekoa da, hondakin organikoak botatzeko konpostagailuak izena eman duten familiek soilik erabili ahal izango dituztela, eta ezingo dizkietela giltzak beste bizilagunei utzi; izan ere, izena eman zuten auzotarren arabera edukiontzia jarri dituzte leku bakoitzean.

Organikoa, hondakinen %40

Tolosako Udaleko arduradunek nabarmendu dutenez, «auzo konpostak ez du Tolosan hondakinekin dugun arazoa konponduko, baina nobreare txean materia organikoak banatzea zein garrantzi-

tsua den ikusarazteko benetan baliagarria izan daiteke».

Izan ere, datuen arabera, sortzen den hondakinen zatirik handiena hartzen du materia organikoak, hondakinen %40a osatuz: «Aurrerantzean, sukalde hondakinak ongarri bilakatuko dira, naturari bere lana egiten utziz».

Tolosako auzo konposterako gunean botatuko materia organikoak hondakin kudeaketako zirkuitutik aterako dela ere azpimarratu du udalak: «Ez da zabortegea edo konpostatze plantara garraiatu beharrik izango, bertan kudeatuko baita konposta».

Hau guztia prebentzio neurri bat dela azaldu dute, «materia organikoak baita bai errauste plantetan, bai zabortegeietan, arazo gehien sortzen dituen frakzioa: «Zabortegeian usain txarra eta isurkinak sortzen ditu, eta errauste plantan, berriz, materia organikoak izaten da, erretzean dioxina gehien sortzen dituen hondakina».



Pasa den apirilaren 12an jaso zituzten giltzak Alliri auzoan. HITZA

Azkenik, Tolosako Udalak, «auzo konposterako gunearen esperientziak bizilagunen arteko auzolana bultzatuko» duela uste du: «Hondakinek sortzen dituz-

ten arazoak konpontzen saiatzeko herritarren inplikazioa nahiz ardura-hartzea sustatu behar-koak direla uste dugu».

● tolosa@hitza.info

Beti Auzo

jateketa

Garaian
garaiko janariak
Arraikiatan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Joseba Felix Tobar > **Ekonomialaria eta irakaslea**

‘Krisiaren zergatiak eta irtenbideak’ izeneko hitzaldia emango du gaur, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, 19:00etan. Hona hemen krisiaren nondik norakoak ulertzeko hitzaldiaren aurrerapen bat.

«Krisia ez da etorri, ekarri egin dute, baina badaude irtenbideak»

Mikel Iraola Zizurkil

Joseba Felix Tobar Arbulu (Santurtzi, 1945), EHUko irakasle eta ekonomialariak zazpi urte daromatza diruaren teoria modernoak eta krisi hau aztertzen. Bere esanetan, krisia ulertzea erraza omen da, baina...

...Nola azalduko zenioke zer den krisia ulertzen ez duen pertsonabati?

Bankuek diruarekin jolastu egin dutela da krisiaren funtsa. Zeukaten diruarekin, enpresetan inbertitu beharrean, espekulazioan aritu dira, eta ondoren, airea edo zaborra saldu dute.

Zer esan nahi duzu zaborra saltzearekin?

Atzean baliorik ez zuten akzio, opzio eta deribatuak erosi eta saltzen ibili dira bankulariak. Hori hipoteka, aseguru eta airezko inbertsio fiktizioetan eman da. Modu horretan, irabazi gehiago lortuko zituztela uste izan zuten. Zenbaitetan lortu zuten, baina amaieran burbuila horrek eztanda egin du. Orduan, laguntza eske joan ziren gobernuetara, eta haiek dirua enpresa eta pertsonen eman beharrean, bankuen artean banatu zuten.

Nola eta non hasi zen guztia?

AEBtako banketxe nagusiak hasi ziren, Wall Streeten. Allan Grispen, urteetan Ipar Ameriketako banku zentralerako buru izan zenak bultzatu zuen sistema hori. Gauza ona balitz bezala saldu zuten eta herritarren konfiantza irabazi zuten. Europako banketxeek hori ikustean, gauza bera egitea pentsatu zuten.

Eta hain txarra bazen, zergatik egin zuten aurrera?

Berme politiko, ekonomiko eta soziala izan dute une oro. Gobernua, lobby moduan, edota enpresetan aparteko boterea duten pertsonak dira bankulariak. Nonahi. Eta nahi dutena egiteko bidea erraztu zaie. Gainera, salmenta horien atzean mozkinak zeuden, eta horiek onak ziruditen gobernuarentzat. Azkenean hori ez da horrela izan. Dena den, hasieratik zekiten zertan ari ziren.

Beraz, nahita egin dutela diozu?

Bai. Krisia ez da etorri, ekarri egin dute. Hori da krisiaren ingu-

ruan zabaldu beharreko mezu nagusienetakoa bat. Nahita bultzatu tako krisia da, ez da historian gertatu diren gainontzeko krisiak bezalakoak.

Eta inorezen oharu hortaz?

Bai, baina harrigarria den moduan, inoiz ez da ezer gertatu. Grispenek berak, kargua utzi zuenean esan zuen hanka sartu zuela. Randall, Stephanie Kelton edo Warren Mosler bezalako adituek aspaldi esan zuten putzu handi batean murgiltzera gindoazela. FBIk ere, bere garaian, hainbat senatari eta kongresuko kide ohartarazi zituen horren inguruan. Berme politikoki hori izan dutenez, Wall Streetek nahi duena egin izan du beti. Eta egiten jarraitzen du.

Eta Europako bankuek?

Europan bi multzo daude: alde batetik, estatu subiranoak, hau da, moneta propioa dutenak, eta euroaren barnean sartuta daudenak bestetik. Estatu subiranoetan, Britainia Handia, Suedia, Danimarka Islandia edo Norvegia, banku zentrala gobernuaren menpe dago, eta gobernuak erabakitzen du nori, noiz eta nola eman dirua. AEBtan ere horrela da. Euroaren menpe dauden herrialdeetan, ordea, banku zentrala independentea da, eta ahalmena du moneta banatzeko. Ez dago gobernu edo parlamenturik hori kontrolatzeko.

Baina, diotenaren arabera, ez al du bada, Alemaniak agintzen?

Bai, Bundesbank dago atzean. Baita Finlandiako bankua ere. Euroa sortu eta beste herrialdeekin bat egitean, euren banketxean indartsuagoak zirela ikusi zuten, eta kontrola ezarri zuten. Hauek banaketa kontrolatzen dute, dirua nori, noiz, eta zein baldintzapean eman. Horri esker aberasten ari dira, sekulako negozioa egin dute. Azken hoge urteetan eman duen aldaketa ikusi besterik ez dago. Azken finean, Eurogunea Ameriketako Estatu Batuen antzekoa da.

Zein zentzutan?

Estatu Batuetan banku zentrala gobernuaren menpe dago. Herrialdearen barneko estatufederalak, dolarraren erabilzaile dira,

baina ez dute diruaren banaketan eskuhartzerik. Europan, banku zentrala independentea den arren, Alemaniak edo Bundesbankek kontrolatzen du gehienbat, eta gainontzeko herrialdeak, Italia, Portugal edo Espainia, adibidez, estatu federal horien gisara, euroaren erabilzaile dira.

Nola egiten da diruaren banaketa?

Ordenagailuko teklatuaren bitartez, ez du misteriorik. Estatu subiranoek dirua behar dutenean, gobernuari eskatu eta haiek botoia sakatzen dute. Horregatik, AEBei ez zaie ezer kostatu erreskatea. Europan, ordea, Alemaniak kontrolatzen du. Dirua emateko baldintzak jartzen dituzte, hala nola, murrizketak defizit publikoan (irakaskuntza, osasungintza, pensioak...), eta austeritatea. Gainera, interesak gehitzen dizkiete.

Zer gertatuko da neurri horiekin jarraituz gero?

Pobretzen joango dira euroaren erabilzaile izaera duten herrialdeak. Baita bertako herritarrak ere. Baina puntu batetaraino, soilik. Alemaniarrak ez dira ergelak. Ez dute Europa guztiz hankaz

«Herriarrok eman behar dugu krisiaren aurkako lehen pausoa; guk geuk, edo inork ez»

«Badago dirua, eta gobernuen esku jarri beharko litzateke, ez bankuen esku»

«Austeritatean bizitzen jarraitzen badugu, ez dugu krisi honen amaiera ikusiko»

gora jarriko, haiek ikusten dutenaren soilik. Izan ere, ondoren euren produktu eta zerbitzuak saldu behar dituzte, eta saldu ahal izateko, jendeak dirua izan behar du. Orain arte izuarekin jolastan aritu dira, eta oso ondo ateratu zaie. Jendea etsita dago.

Irtenbiderik ba al dago?

Bai, noski. Eta ez da buruaz beste egitearena, ez eta austeritate eta



HITZA

murrizketa neurriak hartzearena. Langile eta ugazaben artean, akordioak sinatu behar dira, soldata, mozkinak, produktibitatea, lan orduak... Politika fiskalak ere berraztertu behar dira bai. Baina batez ere, kapitala industrialari zaindu behar da, eta bertara bideratu behar da dirua, ez espekulaziora. Enpresa txikiak eta ertainei kredituak eman behar zaizkie, baita zerbitzu publikoei ere. Dirua badago, baina kontua da dirua behar den lekuetara iristea.

Eta non dago, bada, diru hori?

Bankuetan. Baina ez dago leku fisiko batean, hau da, aktibo pasibo bat da. Estatu subiranoek eta banku zentralak zabaltzen diete bankuei teklatuaren bidez, kostu handirik gabe. Gauza da, langabezia dagoenean, diru hori gobernuetara jarri behar dutela, inoiz ez bankuetara. Ideia nagusia da, gobernuak enpresa publiko handi bilakatu behar duela, eta dirua martxan jarri behar duela. Jendeak dirua badu, zergak martxan jartzen dira, eta gobernuak martxan jarri duen diru hori berreskuratzen egiten du. Sektore pribatuak marxa ona duela ikusita, inbertitu egingo du eta hobera joango da.

Beraz, bankuetatik dirua aterata beharko genuke?

Eta zer lortzen da horrekin? Mone-ta bati gobernuak ematen dio balioa, zerga bitartez. Banketxeeta-

tik dirua aterata eta koltxoiaren azpian gordeko bagenu, diruaren balio hori debalatuuko litzateke, eta etxean izango genukeen diru horrek balioa galduko luke.

Orduan, nola eraman beharko litzateke aurrera aldaketa?

Zaharkituta dauden eskemak aldatu behar dira, izan ere, zer da sozialismoa XXI. mendean? Aspaldiko eskema eta mitok lurperatu behar ditugu. Banketxeak sozialtzeak ez du ezertarako balio, gero haiei dirua ematen jarraitzen bada. Europan errenta per capita ren arabera banaketa eskatu beharra dago, eta dirua gobernuetan jarri, ez bankuetan. Horretarako ez da zentimo bakar bat ere gastatu behar. Eta eskaera hori egiteko balentria izan behar dugu.

Nortzuk, herriarrok?

Bai. Guk eman behar dugu lehen pausoa. Guk geuk edo inork ez. Alderdi, sindikatu edo ekonomialari talde bati ezin diegu itxaron.

Noiz arte irauango du krisiak?

Jendeak dirurik ez duen bitartean, eta austeritatean bizitzen jarraituz gero, ez dugu krisi honen amaiera ikusiko. Baina badaude irtenbideak. Ezin dugu etsipenean erori. Horregatik eman behar dugu guk aurrerapausoa. Eta modu horretan, gure ekonomia martxan jartzea lortuko dugu. Eta zapaldu nahi bagaituzte, tankeak ekarri beharko dituzte.

Josu Mendizabal ibartarrak Zeelanda Berrira egin dituen bidaietan ateratako argazkiak jarri ditu ikusgai Ibarrako kultur etxean; lurraldearen edertasunak «maitemindu» egin duela dio.

Maorien lurraldera bidaiaria

Iñigo Terradillos Ibarra

Ezezaguna askorentzat, eta ezagutzen dutenentzat edertasun handia gordetzen duen lurraldea. Euskal Herritik milaka kilometrorra geratzen da Zeelanda Berrira, eta horregatik agian ez da euskaldun askorentzat jomuga euren bidaietan. Josu Mendizabal ibartarrak ederki ezagutzen du Zeelanda Berrira. Bi bidaiaria egin ditu bertara, eta han ateratako argazkiekin erakusketa osatu du Ibarrako kultur etxean, «lurralde ikusgarri hura ezagutarazi asmoz».

2010. urtean egin zuen lehendabiziko bidaiaria Mendizabalek Zeelanda Berrira. Bertako lagun bat du, eta lurralde hura gertutik ezagutzeko pausoa eman zuen. Bada, hango lurrak zapaldu eta pixkanaka gehiago ezagutzearekin batera, «maiteminduz» joan zen. «Ikusgarria, zoragarria iruditzen zait, eta lehen bidaiaria hartatik itzultzeko gogoz itzuli nintzen». Eta baita egin ere. Bi urte geroago, 2012. urteko abenduan, berriki, beraz, Zeelanda Berrian egon da. Lehenengo bidaiaria hiru hilabete egin zituen, eta bigarrenean, berriz, bi.

Hango ikuspegiak utzi dute «xundituta» ibartarra: «mendi ugari daude, amaitzen ez diren zelaiak, kilometro ugari dituzten laku andana, fiordoak, flora eta fauna aberatsa... natura gustatzen zaionarentzat leku aparta da». Ikuspegiak gain, bertako gizar-tearen ezaugarriak ere nabar-

mentu ditu: «herri oso lasaia da, adeitsua eta guk duguna baino gutxiagorekin konformatzen dira; euren ingurunearen aberastasunaz jakitun dira, eta asko zaintzen dute. Kontuan hartu behar da gainera, 300 urteko historia besterik ez duen lurraldea dela, eta azken urteetan turismorak gora egin badu ere, oro har, nahiko ezezaguna da», dio.


Lehen aldia da Josu Mendizabalek argazki erakusketa jartzen duena. Bidaiatzen duenean argazkiak egitea gustuko duela dio: «Argazki ugari ditut eginak, kultur etxean proposatu nuen erakusketa jartzeko ideia, eta onartu egin zuten». Hala, zituen 5.000 argazkietatik 120 aukeratu, eta erakusgai jarri ditu Ibarran. Maorien lurraldera Josu Mendizabalen begien bidez bidaiatzeko aukera zabalik dago, eta herritar oro animatzen du erakusketara hurbilduz, nahiz bertara joanez, Zeelanda Berrira bisitatzera, «edertasun hori ezagutzeak me-rezi baitu».

↓ Datuak

- **Erakusketa.** *Zeelanda Berritik.* 120 argazkiz osaturiko erakusketa: paisaiak, mendiak, lakuak, itsasoa, fauna, flora, Maori kulturaren elementuak...
- **Egilea.** Josu Mendizabal ibartarra.
- **Non.** Ibarrako kultur etxean.
- **Noiz.** Apirilaren 30era bitarte. 10:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.



Josu Mendizabal Ibarrako Benito Izagirre Kultur Etxean. IT.



Ikuspegi zoragarriak, Maorien elementuak edota bertako hegaztia den Kiwia ikus daitezke argazkietan.



Argazki gehienak naturarekin loturikoak dira.

Mauka
berria
GAURKO ESKAINTZA

Txindokiko Itzala Zuhaitz Parkea

TXINDOKIKO ITZALA
Hirigunea, 16
20269 Abaltzisketa GIPUZKOA
Tel.: 628-94 72 53
info@txindokikoitzala.com
www.txindokikoitzala.com

Prezioa

11€

berria
taldea

www.mauka.eu

Euskalgintzako hainbat eragilek eta eskualdeko udal ordezkariak errentaren gaineko aitortpena euskaraz egitea eskatu diete herritarrei; iazko datuak gainditzeko, 'Aurten noraino?' kanpaina jarri dute abian.

6.000ora iritsiko al dira?

Asier Imaz

Euskara bizitzako alor guztietara zabaltzea ez da lan-tegi erraza. Urratsez urrats egin beharreko bidea, inondik ere. Errenta aitortpena edo deklarazioa hainbat herritarren bizi-moduaren parte bilakatu da. Uda-berriarekin batera, kukua bezala, kantuan hasten den betebeharra. Burokrazia eta gaztelera sarri loturik joan ohi dira; eta euskarak badu zer irabazia zurrumbilo horretan.

2012ko urteari dagokion errentaren gaineko aitortpena egiteko kanpaina hilabete honetan hasi zen. Amaiera data, ekainaren 25ean jarri dute. Egun, herritarrek hainbat bide dituzte deklarazioa egiteko, eta bide horretan, lehen erabakia hizkuntzarena izaten da: Zein hizkuntzatan egingo dut errenta aitortpena? «Egizu deklarazioa euskaraz!», esan dute ondorengo eragileek: Kontseilua, Galtzaundi Euskara Taldea, Ibarra, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo Udalek eta UEMAko kide diren Tolosaldeko beste zortzi udalerririk, hau da, Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketa, Ikaztegietia, Irura eta Orexak.

Guzti hauek, Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainaren sustapen taldea osatu dute, eta taldearen izenak dioen bezala, deklarazioa herritarrek euskaraz egin dezaten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, kanpaina jarri dute abian: *Aurten noraino?*

↓ Datua

10.205 ESKU ORRI

- **Tolosan.** Galtzaundi aldi-zakariaren barruan banatuko dira.
- **Beste herrietan.** Etxez etxe banatuko dituzte esku orriak.



Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainaren sustapen taldeko kideek deklarazioa euskaraz egitea eskatu dute. HITZA

Ez da lehendabiziko urtea. Aurteaz, helburu berarekin, kanpaina gehiago egin dituzte elkarlanean, eta emaitzak hor daude. Iaz, urrutira joan gabe, 5.200 herritarrek egin zuten deklarazioa euskaraz; aurreko urtean baino 681 lagun gehiago. Euskaraz errenta aitortpena egitea oso erraza dela azaldu dute sustapen taldeko kideek: «Ez dago inongo zailtasunik». Datuak gizentzen jarraritu nahi dute, eta horretarako, aurten ere kanpaina egitea erabaki dute. Leloak herritarrei galdera bat luzatzen die: *Aurten noraino?* Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainaren sustapen taldeak erantzuna argi du: «Helburua

6.000 lagun baino gehiagok deklarazioa euskaraz egitea da». Iazko igoera gainditzea lortuko al dute? «Pauso handia eta sendoa izan da, beste behin ere, guztion babesa eta parte hartzea beharrezkoa da. Euskarak merezi duen lekua izan dezan egunero behar baitu gu guztion zaintza».

Kanpainaren xehetasunak

Eskualdeko herritar guztiek kanpainaren berri izan dezaten, 10.205 esku orri banatuko eta 266 kartel jarriko dira. Tolosaren kasuan, Galtzaundi aldi-zakariarekin banatuko dira esku orriak, eta eraikin publikoetan ere eskuratu ahal izango dira. Gainerako he-

rrietan, etxez etxe egingo da banaketa.

Errenta aitortpena egiteko modu desberdinak daude, eta euskarak, guztietan dauka bere txokoa. Batetik, Gipuzkoako Foru Aldunditik autolikidazio proposamenak ari dira bidaltzen egun hauetan etxeetara. Ados egonez gero, berresterakoan zein hizkuntzatan jaso nahi den adierazirik behar da. Telefonoz berretsi daiteke, 902 100 040 zenbakira hots eginez. Autolikidazio proposamena berresteko aukera eskatu ostean, ondorengo mezua entzungo da: *Ogasun eta Finantza Departamentuarekin euskaraz egin nahi baduzu sakatu 1.*

Internet bidez berresteko, www.gipuzkoa.net/ogasuna/errenta webgunera jo, eta bertan, partikularrek autolikidazio proposamena onartzeko atalean sartu behar da. Identifikatu eta gero, 3. pausoa hizkuntza aukeratu daiteke.

Errenta aitortpena egiteko beste aukera era mekanizatua da, gestoria baten bidez edota foru aldundiaren laguntza programa erabiliz. Mekanizatua egiteko hitzordua eskatu behar da lehendabizi, 902 100 040 telefono zenbakira deituta, edota internet bidez www.gipuzkoa.net webgunean. Kasu guztietan, euskaraz egin nahi dela adierazteko modua dago.

→ Laburrak

Banka etikoaren inguruko bilera informatiboa, gaur

TOLOSA › FIARE-Banka Etikoako Kreditu Kooperatibako aurkezpen bilera informatiboa egingo dute gaur, hilak 17, Tolosako kultur etxean. Batzarra 19:00etan izango da, eta informazio gehiagorako tsbat.net webgunean jarri dute lotura.

Alegian, Hirukideren batxilergorako eskaintza

HEZKUNTZA › Tolosako Hirukide ikastetxeak batxilergorako duen eskaintza aurkezten jarraitzen du eskualdean barrena, herriz herri. Atzo arratsaldean, Anoetako liburutegian izan ziren, eta bihar, Alegian egongo dira. Hirukide ikastetxeko ordezkariak 16:00etan joango dira Alegiako kultur etxera, eta batxilergoko eskaintza aurkezten 18:30ak arte egongo dira bertan.

Jaiak antolatze bilerak gaur egingo dute

ANOETA › Aurten maiatzaren amaieran hasiko dira Anoetako Jaiak, eta jadanik antolaketa lanetan dabilta herritarrek. Hurrengo batzarra gaur egingo dute, 18:00etan, udaletxean. Jai batzordetik dei egin diete herritako taldeei eta oro har anoetar guztiei. Anoetako festak parte hartzearen bidetik antolatu nahi dituzte, eta horretarako guztien partaidetza eskatu dute.

Intxurreko pilotariak eskualdean ariko dira

KIROLA › Ostegunetik igandera bitarte, Alegiako Intxurre pilota eskolako pilotariak hainbat partida jokatu dituzte Udaberri Txapelketaren barruan. Eskualdeko partidei dagokienez, ostegunean eta ostiralean ikaztegietan jokatuko dituzte partidak. Pilota jaialdiak 19:00etan hasiko dira. Ostiralean, Altzo eta Alegian ere jokatuko dira lehiak, eta hauek ere 19:00etan hasiko dira.

Pandero ikastaroan izena emateko azken eguna

ALEGIA › Loatzoko Musika Eskolako pandero ikastaroa antolatu du Alegian, apirilaren 19tik ekainaren 21era bitarte. Zazpi urteko gorakoek jaso ahal dituzte klaseak, eta izena emateko azken eguna gaurkoa dela esan dute Loatzotik. Matrikula 40 eurokoa da, eta ikastaroan apuntatzeko Loatzoko Musika Eskolako bulegora joan behar da, edota 943 69 26 19 telefono zenbakira deitu behar da.

Agurtzane Belaunzarán Berrobi

Harri-jasotzaile hasi berria da Joseba Esnaola gaztea (1993, Berrobi). 18 urterekin altxa zuen lehen harria jendaurrean Izaskunen eta plazarik plaza gustukoa duena egiten jarraitzeko gogo biziz dago.

Harri jasotzaile peto-pettoa dirudizu. Beti esan izan didate harria jasotzeko aproposa zela nire gorpuzkera. Niregatik balitz aspaldian hasiko nintzen harri-jasotzen, baina etxean gurasoek ez zuten oso gustukoa, gazteegia nintzela zioten.

Noiz eman zenuen lehen pausua?

Lehen urtean Xabier Aranbururen entrenamendu saioa ikustera joan nintzen Azpeitira eta hala, han animatu ninduten harria bizkar gainera igotzera.

Eta Izaskungo plazan estreinatu zinen berehala?

Halaxe da, pasa den urteko maiatzean Xabier Aranbururekin batera erakustaldia egin genuen Izaskunen, 100 kiloko zilindrikoa bi minututan zeinek gehiago altxa.

Nola gogoratzen duzu lehen plaza hura?

Ilusioz eta urduritasunez beterik nengoen. Etxekoak, lagunak eta herritarrak etorri ziren proba ikustera eta hasi bitartean kirioak dantzaren nengoen, gero harria jasotzen hasi eta baretu zitzaizkidan nerbioak.

Plaza gizona al zara?

Hasi berria naiz eta oraindik plaza gutxi egin ditut, baina plaza gizona naizelakoan nago, orain arte etxean egindakoa plazan ere egin dut eta.

Festarik festa ibili zinen lehenengo urtean. Nola dator aurtengoa?

Maiatzaren 10ean emango diogu hasiera denboraldiari Iparraldean. Gero Frantzian ere Landak inguruan erakustaldi bat egin behar dut. Izaskunen maiatzaren 19an izango naiz eta udara aldera Euskal Herrian zehar ibiliko naiz.

Harri-jasotzaile gaztea eta berria zara, horrek plazetan sortuko du ikusmina ezta?

Ez gara harri-jasotzaile asko Euskal Herrian eta beti izaten da go-go herri kiroletan jende berria ikusteko.



A. BELAUNZARAN

Joseba Esnaola ◊ Harri-jasotzailea

Harri-jasotzaile hasi berria da Joseba Esnaola berrobitarra, eta lehen harria jendaurrean, iaz, 18 urterekin altxa zuen Izaskunen; aurtengo denboraldiari maiatzaren 10ean ekingo dio

«Herriko plazan marka jarri eta plaza betetzea gustatuko litzaidake»

Kintopeko Txapelketa prestatu beharal duzu?

21 urteko Txapelketan lehengo urtean hartu nuen parte, baina aurrean ez dut uste parte hartuko dudarik. Froga harri txikiak da eta nik harri handiak nahiago ditut.

Harri txikitik handira salto egin beharal duzu dagoeneko?

Nik nahiago ditut harri handiak, 150 kilo bueltan dabilzanak. Txikiak bizi-bizi aritu behar duzu, handiekin, berriz, bularra gutxiago behartzen da eta indarra behar da.

«Beti esan izan didate harria jasotzeko aproposa zela nire gorpuzkera»

«Gauza bat da indarra edukitzea eta bestea teknika lantzea; asko dut ikasteko oraindik»

Nolako da zure entrenamendua?

Astean bitan Inaki Gorostidiren gidaritzapean harriekin entrenatzen dut. Maila fisikoa mantentzeko mendian ere ibiltzen naiz.

Gorostidiren esperientzia eskertuko duzu ezta?

Oso gustura nago berarekin. Esperientziadun gizona da eta erakusten ere badaki. Harriari nola heldu eta gerriari golpea nola eman berak erakusten dizkit. Gauza bat indarra edukitzea da eta bestea teknika lantzea eta nik asko dut ikasteko oraindik.

Hasi berri zaganatik izango duzu buruan helburu edo ametsen bat.

Harri-jasotzen luzez jarraitzea da helburua, hori maila fisikoak esango du noski, lesiorik ez bada behintzat. Egunen batean herriko plazan marka jarri eta plaza betetzea ikaragarri gustatuko litzaidake.

Berrobin herri kiroletako harrobia bada gero!

Azken urteetako kontua da. Gizon proban Gipuzkoako txapelkun izan ziren herrikideak, pilotan, berriz, Herri Artekoan bigarren geratu ziren eta ni harri-jasotzen...

◊ ibaraldea@hitza.info

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Erretirodunen ibilaldi neurtuan parte hartu zutenak, proba hasi aurretik, herriko plazan. I. GARCIA LANDA

Kirola egitearen garrantzia

Pasa den astetik irurarrak Kirol Astean murgilduta daude; adin eta gustu guztietarako egitaraua prestatu dute

Erredakzioa Irura

Abian da Irurako Kirol Astea, adin eta gustu guztientzat osatutako egitarauarekin. Asteburuan Olinpiada Herrikoia eta xare txapelketetako finalerdiak jokatu

ondoren, atzokoan erretirodunen txanda izan zen. Ibilaldi neurtua egin zuten eta hamabost pertsona inguru animatu ziren parte hartzera.

Bihar eta etzi gaztetxoentzat eta gazteentzat antolatutako ekitaldiak izango dira. Hala, bihar, 17:00etan, kirol saltsa izango da frontoian, zortzi eta hamasei urte bitartekoentzat. Parte hartzaileek aurretik izena emanda izan behar dute. Etzi, berriz, Gazteleku-tik irteera antolatu dute Tolosako kiroldegiko rokodromora.

Larunbatean, VI. Ñañarri Rall-yesprinta izango da jokoan, Irurako Ikastolak antolatua, eta Alegiatik Amezketa egingo dena. Asteari amaiera emateko, igandean, 10:30ean hasita, Bailarako IV. Kros Herrikoia egingo da, eta 16:30etik aurrera pilota partidak egongo dira: Ametsa pilota elkar-teko ikasleen artekoak, gero Beteranoen Xare Txapelketako finala jokatu da, eta, azkenik, Share Elkarte Sariko finala. Egitarau oparora, beraz, kirolari duen garrantzia emateko.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Amasa-Villabona / Zizurkil.** Arropa birziklatua egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute bi udalek. Izena hilaren 30a bitartean eman daiteke, eta ikastaroa maiatzaren 6tik 24ra bitarte izango da, 17:00etatik 20:00etara.
- **Baliarrain.** Maiatzaren 1ean, urtero bezala, Txekor jatea egingo dute Baliarrainen. Txartelak salgai jarri dituzte 25 eurotan Zartagi jatetxean. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 24a izango da. Herri kirolak izango dira bazkariaren aurretik.
- **Bidegoian.** Saiatz Mankomunitateak antolatutako zaintza ikastaroan izena eman daiteke, baina horretarako epea gaur bukatuko da. Ikastaroa hilaren 19an hasiko da, eta izena saiatz@udal.gipuzkoa.net helbide elektronikora idatziz edo 943 68 11 28 telefono zenbakira deituz eman daiteke.
- **Ibarra.** Ahozko ingeles eta frantses eskolak dohain antolatu ditu Ibarako Udalak. Urriatik maiatzera izango dira, eta Ibarren erroldatuta egotea, eta 1997an edo lehenago jaioa izatea beharrezkoa izango da. Izena emateko aukera hilaren 30a bitartean dago zabalik. Euskara zerbitzuan edo kultur etxean eman daiteke. Informazio gehiago nahi duenak, 943 67 38 27 telefono zenbakira deitu dezake.
- **Leitza.** Mendibil Mendi Taldeak hilaren 21erako mendi irteera antolatu du Altzania mendilerroa. Izena ohiko lekuetan eman behar da, eta azken eguna hilaren 18a, osteguna, izango da.
- **Tolosa.** Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatu du To-

- losako Amartz auzo elkarteak. Amartzoko auzo lokaletan egongo da zabalik merkatu txikia, 16:00etatik 19:00etara, ostirala bitartean.
- **Tolosa.** Jai batzordearen bile-za izango da. 19:00etan. Sanjo-anak izango da landuko duten gaia, eta Abastosen elkartuko dira.
- **Tolosa.** Antxon Bandres Bidaierien Txokoan, Cyclotherapy izango dute jorratuko duten gaia. Gazteleraz izango da, 20:00etan hasita.
- **Tolosa.** Atsedena Taldeak, urtero bezala, udako kanpaldia antolatu du uztailaren 26tik abuztuaren 4ra, 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat. Aurten Errioxako Peñaloscintos herriari izango da. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko deitu maiatzaren 10a baino lehen 635 74 64 47 edo 649 22 52 00 telefono zenbakietara.
- **Zizurkil.** Joseba Tobar EHuko irakaslea eta ingeniariak *Krisiaren zergatiak eta irtenbideak* hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean. Zizurkilgo Udalak antolatu du, eta bereziki autonomo eta enpresa txikiei zuzendua izango da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbolen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

VI. ÑAÑARRI RALLYESPINTA

Apirilak 20 • Larunbata
Irteera: 15:00etan Alegiatik Amezketa

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

